

V. Argazki zientifikoaren lehiaketa

2013aren azaroa-abendua



OINARRIAK

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Ikerkuntzarako Zerbitzu Orrokorrek (SGIker) **Argazki Zientifikoaren V Lehiaketa** antolatzen dute. Lehiaketa honek hurrengo eremuetan garaturiko emaitzak zabaltzeko nahi dituzte:

- Bizitzaren Zientzia arloa.
- Materialen Teknologia eta Zientzia arloa.

1.- PARTE-HARTZEA

UPV/EHU-ko ekipamenduaren erabiltzaileak diren ikertzaileek lehiaketan parte hartu ahal izango dute eta ez da izango beharrezkoa berarekin loturik izatea.

Ezin izango dute parte hartu lehiaketan SGIkerreko kideen familiarrak, ezta lehiaketaren antolakuntzarekin loturiko pertsona ere.

2.- IRUDIEN AURKEZPENA

-Onarturiko argazki-teknikak

Besteak beste, Mikroskopia optikoaren bidez lorturiko irudiak aurkez daitezke (Eremu argia, Eremu iluna, Faseen kontrastea, Kontraste interferentziala, Fluoreszentzia, Konfokal, Mikroskopia estereoskopikoa, eta abar), baita Mikroskopia elektronikoa eta nanomikroskopiaren bidez (Transmisioa, Ekorketa, Indar atomikoko, mikroskopia, eta abar) ateratakoak ere.

Era berean, eredu estruktural, eskema edo diagrama irudiak (sare konplexuak, eredu matematikoak, berreraikuntza eta 3D-tan errederizatuak), datu-lortzearen bidez egindakoak (Proteomika, Raman, Infragorria, X-izpiak, Espektroskopia eta abar), eta zientzia-emaitza modu ikusgarri batean sustatzea helburu edukiz.

- Aurkezpen metodoa:

Parte-hartzaile bakoitzak bi irudi bidali ahal izango ditu gehienez. Irudiak hurrengo web helbideko formularioa beteaz bidaliko dira:

http://www.ehu.es/SGIker/argazki_lehiaketa

Irudi bakoitzak zehaztasun guztiak izango dituen azalpen laburra eta izenburua izango ditu (Lagin-mota, ekipamendua, erabilitako teknika eta abar). Era berean, lorturiko emaitzen azalpena erraztuko du.

Literatura-estilo didaktikoa aintzat hartuko da, eremu zientifikotik kanpoko pertsonari erakutsitako emaitza jakinarazi ahal izateko.

Irudiak, onarturiko formatu bakarrean aurkeztuko dira (JPG/JPEG irudi formatuan). Irudi bakoitzak 6MB-ko gehienezko tamaina izango du.

3.- LANEN BALORAZIOA ETA EPAIMAHAIJA

Irudiak baloratzeko, lehiaketaren arloko adituez osatutako epaimahaiak, hurrengo parametroak kontuan hartuko ditu:

- Inpaktu bisuala
- Zailtasun teknikoa
- Emaidza zientifikoa
- Originaltasuna eta estilo didaktikoa

4.- EPEA

Irudiak jasotzeko azken eguna **2013ko abenduaren 13an** izango da. Lehiaketa behin amaituta, irudiak jendaurrean erakutsiko dira SGIkerren web orrian.

5.- SARIAK

Aurkezpenean dagoen kategoria bakoitzeko irabazle banari sari bakarria emango zaio, hau da:

- Bizitzaren Zientzia arloa.
- Materialen Teknologia eta Zientzia arloa.
- Irabazleak *iPad Mini* lortuko du.

Oharra: hornidura arazoak izanez gero, Antolaketak eskubidea gordetzen du beste sari batzuk emateko, eskeinitakoen antzeko ezaugarri edo hobeak izango dituztenak.

6-SARITUEN KONPROMISOA

Lehiaketako sarituek hitzaldi labur bat egiteko konpromisoa hartzen dute epaimahiaren eta bertaraturiko jendearen aurrean. Hitzaldia 5 minutu inguru izango da.

7.- EGILETASUNA ETA JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK

Parte hartzaileek aurkezturiko irudien jabetza intelektuaren egile eta jabe izan beharko dute eta hauek ezin izango dira beste lehiaketa batean sariturik egon aurretik. Era berean, ziurtatzen dute ez dituztela urratzen hirugarren pertsonen eskubideak.

Parte hartzaileek UPV/EHU-ri, izaera ez eskusiboan eta mundu mailan, libreki eta kontraprestazio ekonomikorik gabe, beharrezko eskubideak ematen dizkiote beraien irudiak erreproduzitzeko, banatzeko, publikoki komunikatzeko eta erabiltzeko edozein euskarritan, aktualitatean ezagunak edo ez, lehiaketarekin loturiko sustatzeko helburuekin eta unibertsitate-ekintzarekin lotutako beste ekintza batzuekin, betiere bere egiletasuna adieraziz eta kontraprestazio ekonomikorik jaso gabe.

Lehiaketa honetan parte-hartzeak, oinarri hauen onarpena eta epaimahaiaren eta antolaketaren erabakien adostasuna suposatzen ditu.